

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

Hauxe da!



Kaixo herrikide!!!

Iritsi dela azkenean uda eta atseden hartzeko garaia! Eta ohi bezala, oporrak hartu aurretik azken bi hilabeteetan herrian gertatutakoak eta datoze-

nak bildu ditugu uztaileko ale honetan. Ezin ahaztu San Pedro festak pasa berri direla. Hori horrela, argazki bilduma bat egin dugu. Bestalde, Igeldoko historia

eta istorioak biltzen dituen liburua ere argitaratu da azkenean eta horren berri ere jaso dugu. Baita Harrera etxetik bidali diguten gutuna ere.



Jolastu eta jolastu Udalekuetan

Uztailaren 3az geroztik Udalekuetan dabilta herriko hainbat ume. Uztailaren 28a izango da Udalekuen azken eguna eta hila-bete osoa kontuan hartuta, 29 ume ibiliko dira. Lehenengo

hamabostaldian Eneko, Aroa, Haizea eta Liberekin ibili dira jolasean eta ekintza desberdinak eginez: eskulanak, kirola, ur-jolasak, ginkana, altxorraren bila... Bigarren hamabostaldian,

Liberen ordez Maialen ariko da gainerako hiru begiraleekin batera.

Goizero-goizero ekintza ugari egiten dituzte eta primeran dabilta giro ederrean.

Eskerrik asko beste behin ere!

Aurreko urteetan bezala, festen ondoren afari-merienda txiki bat eskaini zuen Herri Kontseiluak festetan laguntza emandako herritarrei eskertzeko. Uztailaren 13an izan zen eta 40 lagun inguru elkartu ziren. Dena dela, festetan lanean eta laguntzen aritutakoak ehundik gora izan direla nabarmendu du Herri Kontseiluak. «Eskerrik asko denoi beste behin ere!!!».



Igeldok ere badu bere historia biltzen duen liburua

Azkenean, hainbat urtetako lanaren ostean, argitaratu da Igeldoko historia eta istorioak biltzen dituen argazki liburua. Jabier Iraola Gabilondok egin da, hainbat herritarren laguntzarekin, eta ekainaren 25ean egin zuten aurkezpena Igeldon. Oso ekitaldi polita izan zen, sorpresaz betea, eta liburuan bildu dutena pixkat bat ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutako herritarrek.

Ondoren, erreserba eginaz zutenek liburua erosteko aukera izan zuten erdi prezioan.

Ale gutxi batzuk geratzen dira

Iraolak jakinarazi du 800 ale argitaratu dituztela eta ale gutxi batzuk geratzen direla dagoeneko. Arrakas-



Ekainaren 25ean egin zen liburuaren aurkezpena Igeldon. Herritar ugari gerturatu zen.

ta izan du eta pozik dago erantzunarekin. Ale horiek librudendetan eta IKOn daude erosgai 40 eurotan.

Bestalde, uztailaren 2a baino lehen erreserba egin zuten herritar batzuk liburua jasotzeko dute oraindik IKOn.

Ikastaro berririk nahiko zenuke?

2023-2024 ikasturteko ikastaroak antolatzen irailean hasiko dira eta orain da ikastaro berriak proposatzeko momentua. Aurreko ikasturtean bezala, honako ikastaroak egongo dira aukeran ziuurrenik: marrazketa, joskintza, balleta, gitarra, pianoa, trikitixa, panderoa, musika tailerra, frantsesa, ingelesa, euskal dantza, break dance, yoga, mintzapraktika, korrika eta xakea. Proposamen berri batzuk ere egin dira: altzarien zaharberritzea eta euskara ikastaroa.

Matrikulazioa iraila hasieran egin beharko da (irailean egingo da deialdi zehatza). Proposamenak egiteko edo zalantzak argitzeko idatzi hona: ieltxokulturelkarte@ymail.com.

Ingeles eta euskal dantzarako irakasle bila

Aldaketak ere izango dira ingelesean eta euskal dantza handien taldean. Stevek eta Aiorak ez dute jarraituko. Hori horrela, irakasleak

behar dira. Interesa izanez gero, jarri harremanetan Ieltxora idatziz.

Agurtzeko, emanaldia

Ikasturte bukaerako emanaldia izan zen ekainaren 16an. Hainbat ikastarotan ikasleek ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten.



Igeldoko mintza lagun taldea.



Ikasturte bukaerako emanaldian break dance erakustaldia egiten.

IGELDO-ETXEA

Gu Uralde-Etxea izan ginen. Gaintxurizketan dagoen harrizko etxe txiki bat. Txikia tamainaz, handia bizipenez. Uralde behean zegoen. Hirutan urak hartu gintuen euriteen ondorioz. Hori hemen ez da gertatuko. Goran gaude eta. Oso goran. Behetik gora mugitu gara. Hemen euriak lurra Uralden baino lehenago ikutuko du, eta behera eroriko da. Goitik behera euria, eta gu berriz, behetik gora. Issac Newtonek izena jarri zion behera tiratzen dizun indar horri, grabitateari. Hau da, berak azaldu zuen, behetik gora igotzeko berez baino indar gehiago egin behar dela. Horrela izan zen guretzat ere, behetik gora, handik hona... ez zen erraza izan. Baino hemen gaude eta oso gustora gainera. Igeldo herrian. Herri bat, pertsonak sortzen dutelako. Herri bat izateko, pertsonen nahia bakarrik behar delako. Beste ezer ez.

Herriarrak ere gonbidatu ditugu gure etxera, Igeldo-Etxera. Gure atea beti egongo dira irekiak, beti. Eta herriaren zati izatearen ideia dugu buruan. Burutik, eskura pasatzea da orain kontua. Ideietatik, akzioetara. Horretarako da baita ere idatzi hau. Izateko. Herria bezala, izateko nahia bakarrik da beharrezkoa. Zuen parte izateko, gogoa bakarrik behar da, gogoa eta akzioak. Zu, irakurle, herriaren zati zara, gu ere orduan, beraz herrikideak gara, beraz elkar eza gutzen ez badugu ere, zerbaitek lotzen gaitu. Zerbait baino gehiago esango nuke. Biak gaude goran eta biok jasaten dugu ipar haizearen kolpea neguan, hego haizearen kolpea udaran, euriaren eta behe lainoaren ikutu xarmanta.

*Hossain Kaanache Amghiraf
(Igeldo-Etxeko Zuzendaria)*

*Ura izan ginen, gertu geundelako.
Urez gainezka bat, bi eta hirutan.
Hemen ez dugu horren beldur,
ura goitik behera doalako.*

*Hemen beste zerbait badugu opari.
Haizea neguan eta uso ehiztari.
Neguan hotza eta iparraldeko,
lepoan jantzi bufanda goxo.*

*Behean momentu zailak eta onak zirelako.
Hemen gaude berriz, datorrena jasateko.
Goitik hobeto ikusten da dena,
gure eskua duzue horretarako.*

*Herriaren parte ez ginen,
herritik urruti ginelako.
Igeldoren bihotzean gaude,
hemen herri erdian gaudelako.*

*Igeldo herriaren zati izateko,
zer behar dugu egin zuentzako?
Egingo dugu noski,
hona etorri baino lehen,
herriaren zati ginelako.*

Irailean batzarra egingo da TETaren inguruan azalpenak emateko

Tokiko Entitate Txikiaren inguruan maiatzeko batzarrean jakinarazi zen aldaketa batzuk bazirela hasierako proposamenetik. Aipagarriena eskumen guztiak batera hartu beharrean, bi bloketan banatzea eta epe desberdinetan eskuratzea.

Adierazi dutenez, azken hilabete hauetan proposamena lantzen joan dira Udal teknikariek, pauso asko eman dituzte, eta adostasunera iristeko azken kontuak lotzea besterik ez zaie geratzen. Hori horrela, irailerako dena itxita edu-

kitzea espero dute eta batzarra egingo dute guztia behar bezala azaltzeko. Orduan azalduko dituzte Igeldoko TETak izango dituen eskumen eta zerbitzuak, aurrekontua, ondarea... eta nola izango den bere funtzionamendua.

Herri Kontseilua berritzen

Maiatzaren 7an Herri Batzarra egin zen batez ere Herri Kontseiluaren berritzeari buruz hitz egiteko. Lau urteren ostean, maiatzeko Udal hauteskundeekin tokatzen zen aldaketa eta Herri Kontseilua nola berritu aztertzen aritu ziren. TETak baldintzatuta, aurreko urteetan bezala hauteskundeak egitea ez zela egoki ikusten adierazi zuten (lan handia dakarrelako eta TETarekin egin beharko delako epe motzean) eta zuzenean

herriar batzuekin harremanetan jartzea erabaki zutela. Lau urte hauen balorazioa ere egin zuten eta taldearen egoera ez dela onena izan adierazi zuten: «Lan asko, kide gutxiago eta ezin behar bezala iritsi». Hori horrela, berrantolaketa baten beharra ere planteatu zuten. Herriarrei dei egin zieten Herri Kontseiluan bete-betean sartzeko moduan ez baziren ere, gutxienez zeregin edo arlo jakin batzuetan laguntzeko.

Herri Kontseilua berritzeko honakoak azaldu dira prest modu batean edo bestean: Aitor Beraza, Fer Diez, Aitor Etxeberria, Jon Lizarazu, Imanol Illarramendi, Ainhoa Esteban eta Maddi Cenzano. Eneko Dorrosorok aurreko taldetik jarraituko du. Arlo edo proiektu jakinetan laguntzeko prest ere azaldu dira pare bat herriar gehiago. Zentzu horretan, argi adierazi dute atea irekita dituela laguntza eman nahi duenak.

Eskolako jaialdiarekin agurtu eta iritsi dira oporrak!

Eskolako umeek ekainaren 21ean izan zuten azken klase eguna, eta aurreko larunbatean, ekainaren 17an, Eskolako Jaialdiarekin agurtu zuten ikasturtea guztiek.

Jaialdia frontoian izan zen. Hasteko, Haur Hezkuntzako ikasleek Kantu Koloreren "Zapia" kanta abestu eta dantzatu zuten irakasleen laguntzarekin, eta primeran aritu ziren. Ondoren, Lehen Hezkuntzako ikasleek "Pello eta Otsoa" antzezlan eskaini zuten, baina modu berezi batean: animaliak eguneroko objektuekin adierazten zituzten, eta pertsonak berriz, txotxongilo erraldoiekin. Oso emanaldi polita izan zen.

Jarraian ikasturtearen laburpen-bideo bat eskaini zen, Guraso Elkartek prestatuta. Horrez gain, sorpresa moduan, 6. mailako ikasleentzat ere agur-bideo bat prestatu zuten, eskolan azkeneko ikasturtea egin dutelako. Horrela agurtu zituzten Iraia, Suhar, Jon, Ani, Harri eta Sara.

Emozio guzti horien ondoren, jaialdia amaitzeko momentua iritsi zen, eta horretarako eskolako ikasle guztiek Eskola Txikietako kantarekin koreografia bat egin zuten. Publikoko batzuk ere animatu ziren ateratzera.

Azkenik, Guraso Elkartek antolatutako bazkari goxoaz gozatu zuen eskolako komunitate guztiak, eta arratsaldean dantza-saioa ere izan zuten kultur etxean.

Halaxe adierazi dute: «Egun ederra pasa genuen, eta horren erakusgarri jarraian ikus ditzakezuen argazkiak. Eskerrik asko antolaketan parte hartu zuten guztiei, eguna borobila joan zedin lan handia egin baitzuten.

Hurrengo urtean berriz ere ospatuko dugu elkarrekin!!!».

Orain, oporrekin gozatzeko momentua iritsi zaiei guztiei. Ondo pasa!!!



IGELDO-ERNIO

Igeldotik edo Iturriotzetik

Urteroko ohiturari eutsiz, Igeldotik Erniora oinez joateko plana egin zuten hainbat herritarrek maiatzaren 6an. Goizeko 5:00tan elkartean hitzordua jarri eta eta 9 lagun animatu ziren ibilbide osoa egitera. Bigarren hitzordu bat ere jarri zuten Iturriotzen eta handik abiatuta beste 19 lagunek egin zuten tontorra. Ondoren Zelatungo bordan geratu ziren guztiak bazkaltzen. Denera, 30 ume eta heldu elkartu ziren. Oso giro onean ibili ziren eta egun pasa ederra egin zuten. Datorren urtean errepikatzeko gogoz geratu ziren.



UDABERRI FESTA



Goatzeko hainbat ekintza

Udaberri Festa ospatu zen maiatzaren 12tik 15era eta goatzeko aukera ederra izan zen ekintza desberdinekin. Hasteko, punta-puntako pelota jaialdia antolatu zen, Xala eta Pascual tarteke. Ondoren, barrikotea egin zen eta 60 lagun inguru elkartu ziren. Bizikleta zirkuitua, antzerkia, azoka... beste ekintza batzuk ere izan ziren. Bukatzeko, San Isidro egunean, toka eta txapel jaurtiketa saioekin girotu zen plaza. Tokan Gorka Iruretagoiena izan zen abilena eta txapel jaurtiketan Beñat Galparsoro. Borobiltzeko, sekulako afaria egin zuten hainbat herritarrek Txapelana, baserritarren eguna ospatuz.

FUTBOLA

Igeldo txapeldun!

Maiatzaren 20an Igeldo txapeldun izan zen Donostiako Eskolarteko hondartzako futbol txapelketan, alebin mixto mailan.

Finala English School taldearen aurka jokatu zuten eta igeldoarrak izan ziren nagusi 2-1. Zorionak!!!

Argazkia Din-din elkartearen ere ikusi dai-teke.



ESKOLA TXIKIEN FESTA



Egun pasa polita Lizartzan

Eskola Txikien festa izan zen ekainaren 11n Lizartzan eta Igeldotik hainbat ume eta guraso joan ziren bertara egun pasan. Gehienek Guraso Elkarteak antolatutako autobusean egin zuten joan-etorria, baina kotxez ere joan ziren beste hainbat. Bertan ekintza desberdinak egiteko aukera izan zuten ume eta gaztetxoek: puzgarriak, eskulanak, aurpegiak margotu, eskalada, dantza...

Antolakuntzak bazkaria ere prestatu zuen frontoian eta Igeldotik kuadrila ederra gerturatu zen bertara. Bazkalostean, gainera, bingo musikatua izan zuten eta sari eta guzti etorri ziren, Olatz Astiazaranek linea egitea lortu baitzuen!




Datorren urtean gehiago!

Denetariko ekintzak izan dia festetan eta giro onean joan dira orokorrean. Parrandari begira, jende asko bildu zen larunbat gauean eta oso irudi politak utzi zituzten plazan.

Datorren urtera arte agurtu ditugu Sanpedroak, baina aurretik ondo gozatuta! Ekainaren 23tik uztailaren 2ra adin eta gustu guztietarako ekintzak egon dira eta orokorrean, giro onean eta herritarren partehartzearekin joan dira festak. Herritarrek emandako laguntza ere handia izan da.

Parranda aldetik, San Pedro eguna behar bezala ospatu nahi izan zuten herritar askok eta indarrean hasi ziren. Dena dela, larunbata izan zen jende



Larraitz Zinkunegi irabazle

Festetako egitarauaren portada aukeratzeko Argazki Lehiaketa antolatu ohi du Jai Batzordeak eta aurtengoan ere halaxe egin da. Lehiaketako irabazle Larraitz Zinkunegi izan da eta bere lana izan da aurtengo egitaraua jantzi duena. Zinkunegik 100 euroko saria ere irabazi du.



gehien bildu zuen eguna. Afalostean bertako eta kanpoko jende asko gerturatu zen festara eta plaza bete egin zen. Oso irudi politak utzi zituzten gau osoan zehar, dantza eta dantza!

Jabier Iraola sariduna

Festetako boletoak ere atera dira aurtengoan eta Jabier Iraola izan da sariduna. Hiru sariak berari tokatu zaizkio: Akelarre jatetxean bazkaria eta IKOn gastatzeko bi bono: 150 eta 250 eurokoak. Zorionak Jabier!!!

Ohi bezala, festetako ekintza desberdinekin argazki bilduma bat osatu dugu datozen orrietan. Ea gustatzen zaizuen!

ĒKAINAK 23

Bero-bero

San Juan bezperarekin hasi ginen murgiltzen festetan eta berotik hasi genituela esan behar. Ez eguraldi edo suaren berotasunagatik bakarrik, fajitetako saltsa pikanteak ere lagundu zuen berotzen barrua! Fajitekin egindako afari-meriendak arrakasta izan zuen oraingoan ere.

Ohi bezala, gaueko 22:00etan piztu zen sua eta herriko umeek aurretik prestatutako txaparroak bertara bota zituzten.

San Juan eskeko kuadrilak ere orduan eman zion hasiera etxex etxeko ibilaldiari urteko gaurik magiko eta motzenean.



EKAINAK 24



Ondo kostata

Bero egin zuen Igeldoko krosaren egunean eta ondo kostata bukatu zuten askok lasterketa. 41. edizio honetan 56 korrikalarik hartu zuten parte eta oraingo honetan ere, Aitor Etxeberria igeldoarra izan zen azkarrena (0:25:15). Gizonezkoetan, Iñigo Exposito geratu zen bigarren (0:26:04) eta Imanol Bellido hirugarren (0:27:45). Emakumezkoetan, Iosune Alberdi helmugaratu zen lehendabizi (0:32:47), Maite Carrica bigarren (0:32:57), eta Maria Sanroman hirugarren (0:34:03). Aurreneko igeldoarren sariak Joritz Etxeberria (0:28:30) eta Estitxu Iturraldeentzat (0:39:29) izan ziren.

Kros txikia ere egin zen goizean eta horrela geratu ziren sailkapenak:
 HH mailan, Marco, Telmo, Urritz;
 LH 1-2 mailan, Oxel, Orhi, Julen;
 LH 3-4 mailan, Haitz, Haritz, Nora;
 eta LH 5-6 mailan, Ani, Jon.

Esfortzu handia egin zuten denek eta dominak jaso zituzten guztiek. Baita hamaiketako ederra ere!





Kirol gehiago

Ekainaren 25ean arrantza eta pelotaren txanda izan zen. Goizean goiz, arrokako arrantza lehiaketa jarri zen martxan. Dozena erdi lagun animatu ziren, baina itsaso txarraren eraginez, arrantza gutxi egin zuten eta lehiaketa bertan behera uztea erabaki zuten.

Arratsaldean, Pala Txapelketako finalak jokatu ziren. Palaz maziza txuriarekin Onditz eta Aratz nagusitu ziren 30-27 Josu eta Anderren aurka; eta palaz teniseko pelotarekin, Jasone-Ixiar 25/Nekane-Ainara 18.

Eguerdire partean, kirolaz aparteko ekitaldi bat ere izan zen. Hain zuzen, Jabier Iraolaren liburua aurkeztu zuten plazan: *Igeldoko historia eta istorioak*. Herritar ugari gerturatu zen aurkezpenera.





EKAINAK 29

Egun handia

San Pedro egunarekin iritsi zen egun handia eta herritar askok egun borobila pasa zuten. Din dinek eskainitako hamaiketakoarekin girotu zen plaza goizean eta Kooperatibako kideek eman zieten festei hasiera Ttonttorroren igoerarekin.

Ondoren, herri kirolak egin ziren herriko gazteen artean. Aurretik geratu ziren Urtzi Etxebeste, Imanol Arruti, Maddi Cenzano eta Iñigo Altuna. Bigarren taldea: Mikel Olasagasti, Birjina Zelarain, Beñat Urkola eta Joxemari Uranga.

Ume eta gaztetxoek ere izan zuten zerekin gozatu. Goizean zehar, apar-festan ibili ziren!

Arratsaldean, Toka eta Bolo lehiaketak jokatu ziren. Bi kasuetan Jabier Sorondo izan zen nagusi. Tokan bigarren, Matxe izan zen eta bolotan Urko Artano.

Ondoren, emakumeen eskuzko pilota partida jokatu zen toke erdiko pelotarekin. Erasun-Larrarte bikoteak irabazi zuen 25-20 Arrillaga-Mendizabalen aurka.

Ohi bezala, idi demaren txanda ere izan zen iluntzean. Telleriaren idi pare nagusitu zen 33 plaza, 3 zinta eta 2,65 metroekin. Artolarenak 26 plaza, zinta 1 eta 48 zentimetro egin zituen.

Gauean, Bide Batez taldeak jarri zuen parrandarako bidea.





Gogotik gozatu zuten etxeko txikiek

Umeek euren eguna izan zuten ekainaren 30ean. Ttonttorro txiki igoz hasi zuten festa eta egun osoan ez ziren geratu: jolas parkea, bazkaria, tailerrak, jolasak, merienda, kalejira...
Asko gozatu zuten!

Bestalde, arratsaldeko azken orduan giro ederra jarri zuen Matraka elektrotxarangak. Adin ezberdinetako herritarrak ibili ziren beraien erritmoei segika. Parranda, berriz, Iñorkinak, Mehatxuka eta Dj Jo ta Txorekin egiteko aukera izan zen.



UZTAILAK 1



A ze parranda!

Larunbat goizean giro kaxkar xamarra egin zuen eta V. Oliba jaitiera bertan behera geratu zen. Pena izan zen aurtengoan pepinilloek eta mahatsek ere konpetitzeko aukera baitzuten!

Larunbata izanik, herri bazkaria egin zen eta arrakastatsua izan zen beste behin ere. 127 lagun elkartu ziren. Arratsaldean, Umore Horiak jarri zuen giroa. Lau talde aritu ziren prestatutako proba xebletetan lehiatzen eta talde berdea izan zen nagusi.

Afaldoren berriz, jende ugari gerturatu zen festara, herrikoak eta herrikoak ez zirenak. Plaza bete egin zen. Sekulako giroa jarri zen eta Trikidantzen eta Fresa Morangoren eskutik parranda ederra egin zuten askok. Aspaldian halako gaupasarik!!!





Azken eguna ekintzaz betea

Santa Ixabel egunarekin bukatu ziren festak. Azken eguna, baina ekintzaz betea izan zen. Eguerdian, patata tortilla lehiaketa egin zen eta Jabier Sorondorena izan zen tortillarik goxoa. Bigarren, Juanjo Barrondo geratu zen.

Denera, 17 tortilla aurkeztu ziren.

Ondoren, Eutsi Ramon! antzerkiak gozatzeko aukera izan zen.

Arratsaldean, euskal dantza emanaldia eskaini zuten herriko dantzariak. Ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten eta oso emanaldi ederra eskaini zuten.

Ohi bezala, primerako bertso saioa ere eskaini zuten punta-puntako lau bertsolarik.

Santa Ixabel eguna izaki, zaldi demak ez zuen hutsik egin eta Belaustegiren Sandokanek irabazi zuen 86 plaza eginda; Garateren Klintonek 48 plaza egin zituen.

Festak agurtzeko, Auresku Herrikoa egin zen.

Eta oraindik indarrean zeudenek goizaldera arte festan jarraitzeko aukera izan zuten Izer eta Alabier trikitilarien eskutik.





Umeen parkea egoera txarrean dagoela salatu eta berria egiteko eskaera egin du guraso talde batek.

Ikusmina eta aldarrikapena

Uztailaren 3an Tourra pasa zen Igeldotik eta herritarren artean ikusmin handia sortu zuen. Errepide nagusiaren inguruan leku desberdinetan elkartu ziren haur eta helduak. Horietako puntu bat izan zen IKO ingurua. Bertako mahaian bazkaldu zutenak ere izan ziren lasterketa noiz pasako zain. Giro ederrean ibili ziren banatzen zituzten opariak jasotzen eta txirrindulariak animatzen.

Bestalde, aldarrikapenerako aprobetxatu zutenak ere izan ziren. Guraso talde bat plazako ume parkearen egoera salatzen ari da azken aldian, oso egoera txarrean dagoelako, eta Tourra aprobetxatuz, parke berria egiteko eskaera egin zuten berriz. Errepidean ikusi zitekeen margotuta: Igeldon parke berria ya!



OHARRA

Iritzi-artikuluak argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak urrian eta abenduan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

